

ALKATETZAREN MEMORIA: 2025EKO AURREKONTUAK

2024. ekitaldiaren Aurrekontuak onesteko bideratu den espedientearen barruan, nahitaezkoa da Alkatetzaren Memoria hau sartzea.

Memoria honen helburua da udal gobernu-taldeak 2024. ekitaldirako prestatu duen aurrekontu-zirriborroaren partidarik esanguratsuenak banakatu eta argitzea, gure herriaren eraldaketa bultzatzen jarraitzeko, dituen erronka ugariari aurre egiteko eta, azken finean, gure bizilagunen bizi-kalitatea hobetzen laguntzeko.

Era berean, dokumentu honek balio izaten du Alkatetzak aurrekontua onartzeko Udaleko beste alderdi politiko batzuekin duen negoziazio-prozesuaren berri emateko, eta argi eta garbi adierazten du PSE-EEK egunez egun izan duen elkarriketarako eta negoziatorako jarrera, eta, azken urteotan, hainbat eta hainbat akordiotan gauzatu dena (bai aurrekontuen arloan, bai udal-kudeaketari dagozkion beste gai zehatz batzuetan) EAJ- PNV, EH- BILDU eta ELKARREKIN PODEMOS alderdiekin.

Horren harira, udal testuinguru politiko berria azpimarratu nahi dut, aurreko urteetako ez bezalakoa, zeinean 2025erako aurrekontuen proiektua onartuko dugun.

Testuinguru berri hori PSE- EEK eta EAJ- PNVk 2024an koalizio-gobernu bat eratzeko lortutako akordioaren emaitza da, eta, horren ondorioz, EAJ- PNVren zinegotziak udal-gobernuan sartu dira berriki, hainbat arlotan gobernu-ardurak hartuz.

2025erako aurrekontuaren zirriborroa gobernuko bi alderdi politikoek (PSE- EE eta EAJ- PNV) elkarrekin egindako lanaren emaitza da; beraz, aldeko botoak izango ditu eta, hortaz, onartzeko behar den gehiengoa. Horixe da, ondorioz, aurreko urteekiko alde nagusia; izan ere, lehen gobernu sozialistaren taldeak ez zuen gehiengorik.

Alderdi politikoen ekarpenek —aurrekontu-akordio bidez aurkeztutako zirriborroan sar litezkeenak— aberastu egingo dute gure herriaren eta auzotarren beharretara, interesetara eta erronketara egokitzen den proposamena.

Aurrekontu-zirriborro honen asmoa eta helburua ezin zitekeen bestelakoa izan: hiri handi honek merezi duen bezala, herritar guztien zerbitzura egotea. Kudeaketa-tresna ba da, balio behar duena PSE- EE eta EAJ- PNVren arteko koalizio-gobernuak helburu horiekin proposatu dituen ideiak eta proiektuak bultzatzeko.

Aurrekontuen zirriborro honetako gastuen eta diru-sarreraren kapituluak aztertu baino lehen, garrantzitsua iruditzen zait zirriborroan, era batera edo bestera, txertatzen diren bi elementu aipatzea.

1.- Next Generation Funtsak.

Nahiz eta aspaldi utzi genuen atzean COVID- 19aren pandemia, Next Generation Funtsak deiturikoek presentzia handia dute oraindik Udalaren eguneroko jardunean, eta, ondorioz, 2025eko aurrekontuen parte izan beharko dute.

Ubitxa eta San Krstobal auzoak lotzen dituzten bi igogailuak, neurri handi batean Funts hauek finantzatutakoak, udal-gobernu honen —kanpoko finantzazioa lortzeko eta hiriarentzat beharrezkoak diren proiektuetan aplikatzeko— kudeaketa eraginkorraren adibiderik argienak dira.

2025eko aurrekontuari dagokionez, Next Generation funtsek finantzatzen dituzten proiektuak —gaur egun gauzatzen ari direnak— nabarmendu nahi ditut: 1.- Torrekua anbulatorio zaharra birgaitzea, energia aldetik efizientea izango den eraikina bihurtzeko. Torrekuan, besteak beste, Amañako pertsona nagusientzako zentro berria egongo da, eta aurreikusten da 2025eko azken hiruhilekoan amaitzea. 2.- Txonta auzoko eraikin askoren birgaitzea ere 2025. urtean amaituko da. 3.- Estaziño-Azitain arteko trenbidearen estaldura.

2.- Debabarrena LJE (Lehentasunez Jarduteko Eremua)

Debabarrena eskualdea Lehentasunezko Jarduketa Eremu (LJE) izendatzeak aukera emango digu osatzen dugun udalerrioi Eusko Jaurlaritzatik eta, hala badagokio, Gipuzkoako Foru Aldunditik finantziario osagarria lortzeko, gure hirientzat eta gure bizilagunentzat funtsezkoak diren trakzio-proiektuak gauzatzeko.

Zalantzarik gabe, albiste bikaina da Eibar hiriarentzat eta, oro har, Debabarrena eskualdearentzat; izan ere, finantzaketa horrek lagunduko du gure herritarren bizi-maila eta -baldintzak hobetzeko proiektu eraldatzaileak eta beharrezkoak bultzatzen, zeinak Gobernuaren laguntzarik gabe ezingo liratekeen aurrera eraman.

Eskualdeak jasotako informazioaren arabera, Eusko Jaurlaritzak 24 milioi euro bideratuko ditu proiektu honetarako, datozen 4 urteetan (7 milioi 2025eko ekitaldian, beste 7 milioi 2026an, beste 7 milioi 2027an eta 3 milioi gehiago 2028an). Diru hori eskualdeko udalerrioek 2024an landu ditugun proiektuak gauzatzeko erabiliko da (proiektu horiek Eusko Jaurlaritzari aurkeztu zaizkio onar ditzan, eta haien oniritzia jasota, adierazitako urteetan finantzatuko dira).

Dokumentu hau idazteko unean, udalerrioek ez dugu informazio zehatzik jakiteko Eusko Jaurlaritzak nola finantzatuko dituen onartutako proiektuak, eta, ondorioz, udalerriek nola islatu beharko ditugun proiektu horiek gure kudeaketa-tresnetan, besteak beste, aurrekontuan. Horrek eragotzi egiten dit zehaztasun gehiagorekin hitz egitea.

Hala ere, aipatutako finantzaketa-mekanismoa berehala martxan jarri behar denez, eta kontuan izanik 2025erako Eibarko Udalak onetsitako proiektuak abian jartzeko funtsak lortu beharko lituzkeela, egokitzat jo dut memoria honetan gai hau aipatzea eta berariaz jasota uztea.

Laburbilduz, eta aurreko guztia kontuan hartuta, 2025eko aurrekontuen zirriborro honek Udalaren ezaugarri izan den inbertsio-pultsua berreskuratzen uzten digu, eta aukera ematen digu proiektu estrategiko berriei ekiteko. Izan ere, 2024ko ekitaldiaren, funtsean, gure hiri-ingurunea eraldatzeko eta hobetzeko proiektuak finkatzen aritu baikara.

Horrela, 2024ko uztailean martxan jarri genuen, batetik, udaletxearen atzealdetik erdialdea eta Legarre lotzeko proiektuaren lehenengo igogailua, eta, bestetik, Barakaldo kalea eta trenbidearen eta Elektrozikloen gaineko pasealekua lotuko dituen igogailuaren obrak hasi genituen. Egitasmo horiek guztiak adin guztietarako pentsatutako hiri irisgarri baten aldeko gure apustuaren isla dira.

Gainera, 2024. urtean auzoetan jarri genuen arreta. Amañan, auzoko adinekoen zentro sozial berriaren obrak hasi genituen eta Bustinduitarren kalea eraberritu; Jardinetan, lehendik zegoen aparkalekua handitzen hasi ginen; eta, azkenik, Hijos de Gabilondoren birgaitzeko eta ingurua hobetzeko lanekin hasi ginen, Barrena kalean.

Hori guztia, ahaztu gabe 2024an proiektu ilusionagarrien oinarriak ezarri ditugula, hala nola Jardinetako igogailu berria edo Arragueta kalearen berrurbanizazioa, biak 2025erako aurreikusiak, edo Txonta kalearen berroneratze globala, jada martxan dagoena, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Saila funtsezko bidelagunaren laguntzarekin.

Puntu honetara iritsita eta jarraitu baino lehen, aipatu nahi nuke Udala eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Saila egiten ari diren ahalegina Eibarrek, epe laburrean, etxebizitza babestuen parke handiagoa izan dezan, gaur egun dagoen etxebizitza-eskaerari behar bezala erantzuteko. Izan ere, eskaera hori lehen mailako premia da, ez bakarrik udalerrian, baita Estatuan ere.

1.- Bittor Sarasketa kaleko epaitegi zaharraren birgaitzea, Eusko Jaurlaritza egiten ari dena, eta helburu duena gazteentzako zuzkidura-bizitokiak egitea, 25 etxebizitza berri guztira.

2.- Egazelaiko Babes Ofizialeko Etxebizitzen eraikin berria, gaur egun Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Saila eraikitzen ari dena, hirian babestutako 30 etxebizitza berri baino gehiago sortzea ekarriko duena.

3.- 2025ean, Eibarko Udalak Eusko Jaurlaritzari lagako dio Barrena kaleko LAPEYRA industria-eraikin zaharra (Udalak erosi zuen 2023an), babes ofizialeko 25 etxebizitza berri egiteko. Ekimen horrek, gainera, ingurua berroneratzen lagunduko du, erabiltzen ez den industria-eraikin bat etxebizitza bihurtuta.

4.- Era berean, 2025ean, Eibarko Udalak Eusko Jaurlaritzari lagako dio Txontan dagoen AIBE industria-eraikin zaharra, gazteentzako zuzkidura-bizitoki bihurtzeko (40 etxebizitza berri inguru). Ekimen horrek, aurreko kasuan bezala, ingurua berroneratzen lagunduko du, erabiltzen ez den industria-eraikin bat etxebizitza bihurtuta.

5.- Azkenik, ez da ahaztu behar Eusko Jaurlaritzak Txontan babes ofizialeko 200 etxebizitza eraikitze duen makroproiektua. Horretarako, Udala Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa puntuala amaitzen ari da, proiektu horri egokitze juridikoa emateko.

Laburbilduz, 5 funtsezko zutabe, babestutako etxebizitza publikoaren alde egiten ari den ahalegin instituzionalaren adibide, eta Memoria honetan aparteko aipamena merezi zutenak, bereziki, ekimen horiek 2025ean aurrekontu-arloan izan lezaketan eraginagatik.

Aurrekoa finkatuta, 55.783.189,99 euroko aurrekontu-zirriborroa aurkeztu dugu, Eibarko herritarrek gaur egun dituzten azpiegiturak, instalazioak eta zerbitzuak mantentzeko; ekonomia- eta ekoizpen-ehunari laguntzeko; gure hirian dugun elkarte-sare ugari eta askotarikoari laguntzeko, eta gure hiri-ingurunea etengabe hobetzen jarraitzeko, Eibar hiri irisgarriagoa, erosoagoa eta bizigarriagoa bihurtuz. Jarraian azaltzen dira diru-sarreraren eta gastuen kapituluak, aurrekontu-zirriborro honen zehaztapenen eta berezitasunen ikuspegi orokor egokia ematen dutenak.

DIRU-SARREREN KAPITULUAREN EGOERA

Aldez aurretik eta 2025. ekitaldirako aurrekontu-zirriborroan jasotako diru-sarreraren aurreikuspena aletzen hasi baino lehen, 9. Kapituluak, Finantza-pasiboak, aipatuko dit labur-labur. Kredituaren bidez, Kapitulu horrek aukera ematen du aurrekontuak behin betiko orekatzeko, eta —gure finantza-egoera orokorrari begira egokia den zorpetze arduratsu batean oinarrituta— gure diru-sarreraren ahalmen hutsak egiten utziko lituzkeenak baino gastu eta inbertsio gehiago onartzeko.

Hori esanda, eta 9. Kapituluari dagokion zenbatekoa kontuan hartu gabe (2025erako 9.587.466,11 euroko aurrekontua du), aurtengo aurrekontuen zirriborro honek 46.195.743,88 euroko diru-sarrerak aurreikusten ditu; 2024ko ekitaldian, berriz, 38.975.100,12 eurokoa zen. Horrek esan nahi du aurreko urtean baino 7.220.643,76 euro gehiagoko diru-sarrerak aurreikusten direla.

Gehikuntza hori, funtsean, 2025erako aurreikusitako Foru Funtzari zor zaio, 24.412.701 eurokoa, Gipuzkoako Foru Aldundiak duela gutxi emandako aurrekontuak erakusten duen bezala. Zenbatekoa 2024rako aurreikusitakoa (23.245.544 euro) baino handiagoa da (1.167.157 euroko aldea); hori guztia 4. Kapitulan (Transferentzia arruntak) jaso da, aurreraxeago azalduko den moduan.

Atal honetan, orain arte egin den moduan, Foru Funtzak Gipuzkoako udalerrientzat duen garrantzia azpimarratu behar dugu, gure herriaren 2025erako aurrekontuan jasotako diru-sarrera guztietan izango duen eragina ekitaldiaren aurrekontuan jasotako diru-sarreraren % 50ekoa baita.

Eta, Eta, bestetik, 7. Kapituluak aipatu behar dugu, kapital-transferentziei buruzkoa, zeinaren zenbatekoa 10.943.839,79 eurokoa den, eta 2024an, berriz, 835.598,36. Kapitulu horrek jasotzen ditu beste erakunde publiko batzuek, Eusko Jaurlaritzak bereziki, Eibarko Udalaren alde egiten dituzten ekarpen ekonomikoak, beharrezkoak direnak hirian inbertsioei aurre egiteko, eta nekez egingo genituzkeenak guk bakarrik, lehen esan dudak bezala.

Kapital-transferentzia horiek dira, laburbilduz, 2025erako (55.783.189,99 euro) aurrekontu-igoera justifikatzen dutenak, 2024.arekin alderatuta. (50.604.770,70 euro).

Eta azkenik, azpimarratu nahi dut eta balioan jarri 2025eko ekitaldirako tokiko zergetarako izandako igoerak ere eragin duela aipatutako igoera horretan, nahiz eta neurri txikiagoan izan.

2024an, tokiko zergen igoera % 2,6koa izan zen, lehen aldia izanik hamarkada batean udal-gobernuko taldeak horrelako erabaki bat hartzen zuela. 2025ean, berriro egin ditugu goranzko egokitzapenak tokiko zergetan, kasu honetan % 4koak. 2024an bezala, horien igoera, orokorra izan beharrean, oso neurritsua eta selektiboa izan da, eta azterketa zehatz baten emaitza, igoera ahalik eta eraginkorrena izateko, herritar guztiengan izango duen eragina moderatua izateko eta, azkenik, Udalak bere diru-sarrerak handitzeko, dagozkion zerbitzu publikoei arreta emateko baliabide nahikoak daudela bermatuz.

Horrela, diru-sarreraren kapitulu gehienetan igoerak aurreikusten dira, jarraian banan-banan azaltzen direnak.

1. Kapituluak: Zuzeneko zergak.

2025eko ekitaldirako 8.353.584,84 euroko diru-sarrerak aurreikusi dira; 2024ko aurrekontuetan, aldiz, 7.768.449,78 euro aurreikusi ziren. Igoera hori, gehienbat, 2025eko Ordenantza Fiskalen igoeran du azalpena.

Alegia, OHZ zergari, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergari, gainbalioaren zergari eta jarduera ekonomikoen gaineko zergari buruz ari naiz.

2. Kapituluak. Zeharkako zergak.

2. kapituluari dagokionez (zeharkako zergak), 2025eko ekitaldirako 850.000 euroko diru-sarrerak aurreikusi dira; 2024rako aurrekontuetan, aldiz, 300.000 euro. Dakigunez, kapitulu honetan jasotzen den kontzeptu bakarra Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga da. (EIOZ)

kasu honetan, goranzko aldakuntza, berriz ere, tasak eta ordenantza fiskalak % 4 eguneratzean oinarritzen da, bai eta zerga horretarako aurreikusitako hobarietan egindako doikuntzetan ere, zeinek aukera ematen diguten hobekuntza hori 2025eko ekitaldirako udal-sarreraren aurrekontuan sartzeko.

3. Kapituluak. Tasak eta bestelako diru-sarrerak.

Kapitulu honek berriz ere hazkunde nabarmena izan du aurreko urtearekin alderatuta: 2024rako 2.839.352.88 euroko aurrekontua zuen, eta 2025erako 3.287.101,46 eurokoa.

Aurreko kapituluetan bezala, aipatutako kapituluan jasotako kontzeptuetan egindako goranzko doikuntzek udal-sarrerak nabarmen hobetzeko aurrekontua egitea ahalbidetzen digute.

4. kapitulua: Transferentzia arruntak.

Kapitulu honek hazkunde handia izan du aurreko urtearekin alderatuta: 26.293.909,74 euroko aurrekontua zuen 2024rako, eta 27.200.447,21 eurokoa 2025erako.

Aipatutako kapituluan sartutako partida nagusia Udal Finantzaketarako Foru Funtza da, lehen ere aipatu dudana, eta 1.167.157 euroko gehikuntza aurreikusten du 2024arekiko.

Kapitulu hau goi-mailako erakundeetatik, Eusko Jaurlaritzatik zein Gipuzkoako Foru Aldunditik, programa edo ekimen hitzartuetarako jasotzen diren transferentziekin osatzen da, dagoeneko martxan daudenak edo garatu nahi direnak; horien artean, azpimarratzekoak dira, zenbatekoagatik, 651.157, 52 euroko transferentzia, Oinarrizko Lanbide Heziketako ikastaroak emateko Udal Institutuan edo GLLetara bideratutako 567.807,69 eurokoa, egoera ahulenean dauden familien beharrei erantzuteko funtsezko tresna baita. Toki-administrazioa arduratzen da laguntza horiek kudeatzeaz, eta autonomia-erkidegoko administrazioaren eskumena da behar horiei aurre egiteko behar adinako aurrekontu-ekarpena egitea.

5. Kapitulua: Ondare-sarrerak.

Gainerakoen antzera, kapitulu honek ere, udal-instalazioen alokairuen eta errentamendu-emakiden ondorioz likidatuko diren diru-sarrerak jasotzen dituenak, gora egin du aurreko urtearekin alderatuta: 2024rako 179.531,94 euro zeuden aurrekontuan, eta 2025erako, berriz, 216.570,58 euro. Hala ere, partida honek ez du hainbesteko garrantzirik termino absolutuetan.

6. Kapitulua. Inbertsio errealak besterentzea eta hirigintza jardueretatik ondorioztatutako beste sarrera batzuk.

Kapitulu honek igoera txiki bat izan du: 2024rako 744.057,39 euroko aurrekontua zuen, eta 2025erako 780.000 eurokoa.

Aurreikusitako zenbatekoa, besteak beste, udal-ondarea saltzeari eta/edo ondare horren gaineko administrazio-emakidak formalizatzeari dagokio.

7. kapitulua: Kapital-transferentziak.

Lehen adierazi den bezala, kapitulu honetan 835.598,39 euroko diru-sarrerak aurreikusi ziren 2024an, eta, 2025ean, 5.943.839,79 euroko aurrekontua egin da, ekitaldi horretako aurrekontuaren zenbateko osoan zuzenean eraginda.

Kapitulu horrek beste erakunde publiko batzuek, batez ere Eusko Jaurlaritzak, Eibarko Udalaren alde ematen dituzten dirulaguntzak jasotzen ditu, hirian beharrezkoak diren inbertsioei aurre egiteko aukera ematen digutenak, hala nola Hijos de Gabilondo edo Torrekua anbulatorio zaharra birgaitzea beste erabilera bat emateko, edo irisgarritasun-jarduerak gauzatzeko, Barakaldoko igogailu berria kasu, bakarka nekez egin genitzakeenak.

8. kapitulua: Finantza-aktiboak.

2025erako aurreikusitako zenbatekoa 2024rako aurreikusitako bera da, 14.200 euro, eta, zenbatekoari dagokionez, garrantzi txikiko kapitulua da.

9. kapitulua: Finantza-pasiboak.

2024rako kapitulu honetarako aurrekontua 11.629.670,58 eurokoa izan zen; 2025erako, berriz, 9.587.446,11 eurokoa.

Sarreraren eta gastuen arteko aurrekontu-oreka ezartzen uzten duen erraminta dugu finantza-pasiboa. Nola ez, erantzukizunez erabili beharreko erreminta da, eta azkeneko urte hauetan horrela egin izanak zorpetze kontrolatua aurkezten uzten digu, baita finantza-gaitasuna ere, etorkizunari begira aurreikusten diren erroka batzuei aurre egiten uzten diguna, errespetuz, erantzukizunez eta konfiantzaz.

GASTUEN KAPITULUAREN EGOERA

Sarreran aurreratu dugun bezala, Aurrekontu Proiektu honetan, bere onarpena bermatuko duten eta zuzenketen bidez islatuko liratekeen akordio politikoen ondorio izan daitezkeen gehikuntzak alde batera utzita, 2024ko aurrekontu-proiektuarekin alderatuta, gastua 5.000.000 eurotik gora handitu da, 55.783.189,99 eurora arte.

Gorakada edo igoera hori bereziki bi partidatan islatzen da:

1.- Inbertsio errealak: 2024an 8.017.685,81 euroko aurrekontua izatetik 2025ean 13.064.121,91 eurokoa izatera igaro da.

2.- Pertsonaleko gastuak: 2024an 16.474.934,97 euroko aurrekontua izatetik, 2025ean 17.807.826,36 eurokoa izatera igaro da.

Kapitulu biak behar bezala azalduko dira aurrerago.

2025erako aurrekontuen zirriborro honetako gastuen kapitulua zehatz-mehatz aztertu aurretik, beharrezkotzat jotzen dut, labor eta errepikatzen aritu gabe, egungo testuinguru orokorrera gerturatzea.

Agintaldiaren bigarren urte osoan gaude, PSE- Eek 2023ko maiatzaren 28an egindako azken udal-hauteskundeak irabazi zituenetik. Gutxiengoan gobernatu zuen 2024ko azarora arte, eta ordutik EAJ- PNVrekin koalizioan, bi alderdiek horretarako lortutako akordioari jarraiki. Sarreran esan bezala, akordio horrek zinegotzi jeltzaleek hainbat udal-arlotako gobernu-erantzukizunak hartzea ekarri zuen.

Ondorioz, eta hemendik aurrera, gai izan beharko dugu azken hauteskundeetara aurkezteko erabili genituen eta 2023ko maiatzean garaipena eman ziguten proposamen eta proiektu sozialistak martxan jartzeko, 2027ko agintaldi honen amaieran koalizio-gobernu honen konpromisoak aberastu eta osatuko dituzten proposamen eta proiektuekin batera.

2025eko ekitaldia memoria honen sarreran jada jorratutako bi gai markatuko dute, eta, horregatik, aipatu baino ez ditut egingo: 1.- Next Generation funtsak; 2.- Debabarrena, lehentasunezko jarduketaren eremu gisa (LJE).



Aurrekontu-kapituluei dagokienez, udal-baliabide gehien **2. kapitulura bideratzen dira, ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuetara**, 18 milioi euro inguruko zenbatekoarekin (gastu osoaren % 32,16). Hala ere, aurreko urteetan bezala nabarmen handitu beharrean, eta gastuari eusteko eta arrazionalizatzeko ekitaldi arduratsuari esker, ia ez da aldatu aurreko ekitaldiarekiko.

Koalizio-gobernuak aurkeztutako aurreproiektuko gastuen bigarren kapitulurik garrantzitsuena **1. kapitulua da, Langileriari buruzkoa**. Kapitulu horrek aurrekontu osoaren % 31,92 kontsumitzen du, eta 17,8 milioi eurora igotzen da, kopuru absolutuetan 1,3 milioi euro baino zertxobait gehiago handituz. Igoera hori, batez ere, Giza Baliabideen Plan Estrategikoan jasotako neurriak aplikatzearen ondorio da, alde batetik, plantilla berritzea eta udal-sailen benetako eta etorkizuneko beharretara egokitzea, herritarrek eskatutako kalitate-estandarrekin zerbitzua ematen jarraitzeko, eta, bestetik, belaunaldien arteko erreleboa eta ezagutzaren transferentzia egokia egitea.

Horregatik, Giza Baliabideen Planak 6 hilabeteko mentoretza-programa bat aurreikusten du kasu gehienetan, baina are zabalagoa beste batzuetan. Programa horretan, erretiroa hartuko duen langileak eta bere eginkizunetan txanda hartuko duenak denboran bat egingo dute elkarrekin, eta horrek denbora batez plaza "bikoiztuak" egotea ekarriko du, eta hortik gastua handitzea, nahiz eta etorkizunerako inbertsioztat hartu beharko litzatekeen.

6. kapitulua, inbertsio errealei buruzkoa, funtsezko multzoetako bat da 2025erako aurrekontuaren zirriborroaren gastu-kapituluan, eta **13.064.121,91 eurora igotzen da**.

2025eko aurrekontuen zirriborro honek aukera ematen digu, beraz, Udal honek betidanik bereizgarri izan duen inbertsio-pultsua berreskuratzen jarraitzeko, proiektu berriak abian jartzen jarraituz. 2024ko ekitaldian, funtsean, dagoeneko martxan genituen gure hiri-ingurunea eraldatzeko eta hobetzeko proiektuak sendotzeko lan egin dugu.

Hori horrela, 2025eko Aurrekontu Proposamen honetan jasotako ekintza esanguratsuenak xehatzen saiatuko naiz.

- Torrekuako lehengo anbulatorioa birgaitzeko obra amaituta ikusiko dugu, zeinaren bidez, Amaña eta Legarre auzoak espazio anitzeko ekipamendu batez hornituko ditugun. Ekipamendu horren erabilera

nagusia pertsona nagusientzako zentro sozial berria izango da, eraikinaren beheko solairuan kokatuko dena.

- Bustinduitarren kalea berrurbanizatzen amaituko dugu (2. fasea); lehen fasea dagoeneko amaituta dago.
- Arragueta kalea, herriko kale garrantzitsua, berrurbanizatuko dugu, erosoagoa eta erakargarriagoa izan dadin.
- Hijos de Gabilondo industria-erabilerako eraikina birgaitzeko obrekin jarraituko dugu, Barrena kalean, eta baita haren ingurua eraldatzen ere; horrek, zalantzarik gabe, herriaren ekialdea berroneratzen lagunduko du.
- Mutiola kalea eta San Juan kalearen atzealdea berrurbanizatuko ditugu.
- Jardiñetan, 35 eta 37 zenbakietarako sarbidea emango duen lehen igogailua eraikiko dugu. Horrez gain, gaur egun auzoan dagoen aparkalekua handitzen amaituko dugu (2024an hasitako obra). Ubitxako aparkalekuaren proiektua ere aurrera eramango da, behin proiektua idatzita, kreditu-erabilgarritasuna kontuan hartuta.
- Barakaldo kalea eta Estaziño eta Azitain arteko trenbidearen gaineko pasealekua eta Elektrozikloen etxeak lotuko dituen igogailua amaituko dugu.
- Eibarko Klimaren eta Energia Jasangarriaren aldeko Ekintza Plana (PACES) betetzeko bidean aurrera egiteko, plaka fotovoltaikoak jarriko ditugu Sansaburu ikastetxean, San Andresen eta Azitaingo HLPPn.

2024ko aurrekontuekin gertatu zen bezala, **landa-azpiegituretarako** partida 350.000 eurokoa izango da, hori guztia 2023an Eibarko baserritarrak ordezkatzeko dituen Andirao elkartearekin lortutako akordioaren arabera, zeinean jasota dagoen 2027ra arte, zenbateko hori izango dela urtero aurrekontuan sartutako zenbatekoa.



Gainera, ohi bezala, eta Eibarko ikasleek instalaziorik onenak izan ditzaten, partida bat (90.000 €) bideratuko dugu **Eibarko ikastetxeetan hobekuntza-obrak egiteko**. Obra horiek ikastetxeekin adostuko dira, haien eskaerak aintzat hartuta.

Bestalde, **Ingurumen Saila**ren aurrekontua 450.000 eurotik gorakoa da, eta, horri esker, planak eta diagnosiak egin ahal izango dira, hala nola Zuhaitzien Plana, amiantoa kentzeko errolda eta egutegia edo Eibarko 6 ikastetxetan elikagaiak xahutzeari buruzkoak. Horrez gain, zenbait proiektu gauzatu ahal izango dira, besteak beste, baso-partzelak kontserbatzea, Ego ibaia eta hainbat erreka garbitzea, babesleku klimatikoak ezartzea edo lursail gehiago erostea (2023an Pagaegikorta eskuratu zen, eta Lindari lur-zaintzailertzan dugu).

2024ko memoria-dokumentuan nabarmentzen genuen ia milioi bat eurokoa zela Udalak gure hirian **euskararen erabilera eta irakaskuntza sustatzeko** egindako inbertsioa. Aurtengo memorian ere ezin da aipatu gabe utzi bi eremu garrantzitsu horietan Udalak egingo duen inbertsioa, 1,4 milioi eurotik gorakoa baita.

Gizarte-babesaren atalari dagokionez, udal-arlo honetako programen batura ia 5 milioi eurokoa (4.912.288,25). Zentzu honetan, azpimarratu beharra dago agerian geratu den konpromisoa, inor atzean ez uztekoa, eta Eibar eta herri-hiri gehienak bereizten dituen bizikidetza-giroa mantentzekoa. Horrenbestez, **ia 2,4 milioi bideratuko dira zailtasun gehien eta behar bereziak dituzten familia eta kolektiboetarako laguntzeko**.

Era berean, 468.440 euroko aurrekontua jaso da **genero-berdintasuna sustatzeko**, 2024ko bertsua (464.000 euro).

Ekonomiaren Garapen, Enplegu eta Berrikuntza Sailaren programak ia 2,4 milioi eurokoak izango dira. Enplegua sustatzeko inbertsioa 768.393,33 eurokoa izango da. Gainera, 1,5 milioi euro inguru esleitu zaizkio enpresa-garapeneko eta berrikuntzako programari, gure hiriko industria- eta merkataritza-sarea indartzeko neurriak ezartzen jarraitzeko.

Aurrekontu honi esker, halaber, ekintzaileei eta familiei laguntza ekonomikoa emateko ekimenak abian jarri ahal izango dira, bai eta berrikuntza bultzatzeko ere, hori izan baita betidanik Eibarren bereizgarri.

Kirolen aurrekontuari dagokionez, hiri aktibo eta osasungarri baten garapena bultzatzen jarraitzeko helburuarekin diseinatu da.

Aurrekontuaren zati handi bat udalaren kirol-instalazioak hobetzeko eta modernizatzeko erabiliko da, honenbestez 2024an egindako lanari jarraipena emanez, hau da, herritar guztientzako kirol-espazio egokiak, irisgarriak eta kalitatezkoak bermatzeari.

Gainera, tokiko kirol-klubekin dugun konpromisoa berresten dugu, klub horiek ekonomikoki mantentzen laguntzeko, kirola sustatzeko eta komunitate-sentimendua indartzeko oinarrizko zutabeak baitira. Era berean, eskola-kirolari ematen zaion laguntza indartuko da, berebiziko garrantzia baitu gure haurren prestakuntza integralean, ahalegina, lankidetzeta eta errespetua bezalako balioak sustatuz.

Kulturara bideratutako aurrekontuari dagokionez, iazko aurrekontu-partida beretsua izango da, gure bizilagunei bizi-kalitatea aberastuko dien kultura-agenda aberatsa, askotarikoa eta irisgarria eskaintzeko konpromisoa berretsiz. Aurrekontu honek kulturaren aldeko apustu sendo eta etengabea islatzen du, aintzat hartuz kultura kohesio sozialaren, sormenaren eta aurrerapen kolektiboaren eragile dela

Zenbateko hori ekimen-sorta zabal batera bideratuko da, horien artean inpaktu eta kalitate handiko kultura-jarduerak nabarmenduz. Jarduera horiek era guztietako publikoarengana iristeko diseinatuko dira, adin guztiak kontuan hartuz eta ahalmen ekonomiko desberdinetara egokituz. Ekitaldiak espazio enblematikoetan egingo dira, hala nola Portalean, Coliseo eta Errebalen, baina baita eta gure kale eta plazetan.

Udalaren eta kultur taldeen arteko lankidetzari esker, abangoardiako kultur eskaintza bat sendotzen jarraituko dugu, herritarren eskaerei erantzuteaz gain, gure hiria inguruko kultur erreferente gisa indartuko duena.

Arloekin jarraituz, Gazteria arloak 713.858,41 euroko aurrekontua izango du, biztanleria-tarte garrantzitsu horri berariaz zuzendutako programak garatzeko.

Gazteria arloak berak proposatu eta garatutako ekimenez gain, kolektibo horri lehentasuna emango diote beste udal-arlo batzuek, hala nola Garapen Ekonomikoa, Enplegua eta Berrikuntza Sailak. Arlo horiek ekintzailtza sustatzeko programak, laguntza ekonomikoak, bekak eta prestakuntza espezifikoak eskainiko dituzte, gazteen aukerak sustatzeko eta haien laneratzea eta gizarteratzea errazteko diseinatutako tresnak hain zuzen ere.

Zeharkako ikuspegi horrek indartu egiten du Udalak gazteen ongizatearekin eta garapenarekin duen konpromisoa, gure hiriaren etorkizunerako funtsezko zutabetzat joz.

Azken batean, aurrekontu hauek diseinatuta daude aurrera egiteko eta Eibar integratuago, toleranteago, euskaldunago, kulturalki irekiago, jasangarriago, solidarioago eta sozialki konprometituago bat lortzeko. Azken finean, herri bat, bere historia aitortzen duena eta etorkizuneko errealitateetara egokitzen duena.

NEGOZIAZIOA UDAL- TALDEEKIN

Hasieran nioen bezala, dokumentu honek balio izaten du Alkatezak aurrekontua onartzeko Udaleko beste alderdi politiko batzuekin mantentzen duen negoziazio-prozesuaren berri emateko, eta argi eta garbi adierazten du egunez egun sinatzen duen alkate honek izan duen elkarrizketarako eta negoziatorako jarrera, azken urteotan, hainbat eta hainbat akordiotan gauzatu dena (bai aurrekontuen arloan, bai udal-kudeaketari dagozkion beste gai zehatz batzuetan) EAJ- PNV, EH- BILDU eta ELKARREKIN PODEMOS alderdiekin.

Puntu honetara iritsita, aipatu nahi dut aurtengo testuinguru politiko berria —aurreko urteetakoa ez bezalakoa—, zeinean 2025erako aurrekontu-proiektua onartzen den; onarpen hori 2024an PSE- EEk eta EAJ- PNVk Eibarko Udalean koalizio-gobernua eratzeko lortutako akordiotik dator, txostenaren sarreran adierazi dudana bezala.

Ondorioz, 2025erako aurrekontuaren zirriborroa gobernuan dauden bi alderdi politikoek (PSE- EE eta EAJ- PNV) elkarrekin egindako lanaren emaitza da. Beraz, aurreko urteetan ez bezala, aldeko botoak izango ditu eta, hortaz, onartzeko behar den gehiengoa; izan ere, orain arte gobernu-talde sozialista gutxiengoan baitzegoen.

Azaldutakoa alde batera utzi gabe, eta aurkeztutako aurrekontu proiektua onartzeko beharrezkoa den gehiengoa izan arren, berriz ere aztertuko dugu ELKARREKIN PODEMOS EIBAR taldearekin eta EH-BILDUREKIN aurrekontu-akordio batera iristeko aukera, uste baitugu zenbat eta adostasun zabalagoa izan, orduan eta hobeto lan egin dezakegula elkarrekin hiriaren onerako.

Uste dut alderdi politikoek ekarpenek —aurrekontu-akordio bidez aurkeztutako zirriborroan sar litezkeenak— aberastu egingo luketela gure herriaren eta auzotarren beharretara, interesetara eta erronketara egokitzen den proposamena.

Dokumentu hau idatzi den egunean, ez da amaitu bi alderdi horiekin egindako negoziazio-prozesua. Espero dut prozesuak emaitzak izatea eta 2025eko ekitaldiko aurrekontua ahalik eta laguntza handienarekin onartzea.

Amaitzeko, berriz ere zera azpimarratu nahi dut: aurrekontuen zirriborro honek Udalaren ezaugarri izan den inbertsio-pultsua berreskuratzea ahalbidetzen digu, eta aukera ematen digu proiektu estrategiko berriei ekiteko. Izan ere, 2024ko ekitaldiaren, funtsean, gure hiri-ingurunea eraldatzeko eta hobetzeko martxan zeuden proiektuak finkatzen aritu baikara.

Eibar erronka ugari eta askotarikoak dituen hiria da, eta eibartarrak gero eta exijenteagoak dira, eta, arrazoi osoz, eskatzen dutena da udal-kudeaketa eraginkorra, azkarra eta eguneroko beharrei behar bezala erantzuten diena.

Uste dut aurkezten den aurrekontu-proiektuak aukera emango digula hiriaren modernizazioarekin jarraitzeko, gure bizilagunen bizi-kalitatea hobetzeko, hiriko egunerokotasunak eskatzen dituen zerbitzuak eskaintzen jarraitzeko, gure sare ekonomiko, sozial eta kulturalari eusten laguntzeko eta lortu nahi dugun etorkizuneko Eibar hori, bizitzeko erakargarria, atsegina eta hobe den Eibar hori, eraikitzeko beharrezkoak diren urratsak emateko.

Eibarren, 2025eko urtarrilaren 8an.

ALKATEA

JON IRAOLA IRIONDO